

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Valtierrako ureztatze tradizionala modernizatzeak labore-azaleraren % 76 presioz ureztatu ahal izatea ekarri du

Nafarroako Gobernuak 7,6 milioi euro inbertitu eskualdean; han izan da gaur Barcina Lehendakaria.

Viernes, 10 de enero de 2014

Valtierrako ureztatze tradizionala modernizatze obrek labore-eremuen 911,3 hektarea (azaleraren % 76) presioz ureztatzea ahalbidetu dute. Orain arte erretenen bidez eta oinez ureztatu izan dira. Ureztatzea automatizatu denez, onurak jasoko dituzten 400 nekazariak ureztatzea programatu ahal izango dute. Hala, urtean 350.000 euro inguru aurreztu ahal izango dituzte eta emankortasunak ere hobera egingo du; kalkulatu denez, azken hori urtean 1,8 milioi eurorena izango da.



Barcina Lehendakaria eta Esparza kontseilaria Valtierra ureztatzaileen komunitateko kideekin.

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria eskualdean egindako lanak ikustera joan da. Ureztatze instalazioak modernizatu dira eta ustategiak ere berrantolatu dira partzelak dagokien modura elkartuta.

Azken bi urteetan Nafarroako Gobernuak nekazaritzaren alorrean egin duen inbertsio publiko nagusia da. 13.583.046,16 euroko aurrekontua izan du guztira eta, zenbateko horretatik, Gobernuak 7.595.893,05 euro eman ditu zuzenean. Gainerakoa Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak 5.064.348,45 euro, Valtierra Udalak 206.837,95 euro eta ureztatzaileen komunitateak 715.967,71 euro emanda finantzatu da.

Bisitan, Nafarroako Lehendakariarekin batera izan dira José Javier Esparza Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria, Alfonso Mateo Valtierra alkatea, Miguel Ángel García herriko ureztatzaileen komunitateko lehendakaria eta komunitate



horretako beste kide batzuk.

Lehendakaria eta agintariak Juan Carlos Esquiroz obraren zuzendariaren azalpenak entzuten, ponpaketa-estazioan.

Ureztaketa modernizatzea

Jarduerak egin diren eremuak 1.193 hektareako azalera du eta, horietatik, 1.167,3 hektarea urezta daitezke. Beraz, aipatu den bezala, obrek azaleraren % 76 ureztatzeko sistema aldatzea ahalbidetu dute, hortaz, orain, oinez ureztatu ordez presioz egingo da (aspertsoreak, jarioa edo pibotak erabilia). Gainerako 256 hektareetan oinez ureztatzeko sistema mantendu da.

AZYSA enpresak burutu duen proiektuaren ardatz nagusia segundoko 2.700 litro garraia ditzakeen hormigoizko armatuzko ubide nagusia da, ibaian behera dago eta Valtierrako zein Arguedasko ureztatzeko sistemak hornitzen ditu.

Ubide nagusitik oinez ureztatzeko sistema mantenduko duten 256 hektareak ureztatzeko eraikitako hormigoizko erreten-sarea desbideratzen da. Eraikitako ubideen luzera osoa 20,081 km dira, ura Arguedasko ureztatzeko sistemaraino iristeko 4,907 km-ko erretena barne.

Ubide nagusiak presioz ureztatzeko azalera ere hornitzen du. Horretarako 48.076 m³-ko edukierako erregulazio-urrael bat eraiki dute eta, haren ondoan, ponpaketa-estazio bat, 5 motoponpa-talde dituen 66 metroko ur-zutabeko indarrarekin segundoko 1.142 litro botatzeko gai. Ponpaketa-estazioa 13,2 kilovolt-eko linea elektriko batek eta dagokion transformazio-zentroak elikatzen du. Ponpek eraikitako hoditeria-sarearen bidez bideratzen dute ura. Sareak 26,076 km ditu eta ura ureztatzeko-unitate guztietara eramaten du.

71,981 km-ko bide-sarea ere egin da partzela bakoitzera iristeko, baita 5,699 km-ko hustubide-sarea ere erretenetako etenak eta euri-urak kanporatzeko.

Proiektua amaitzeko aspertsio bidez ureztatzeko ekipamendua jarri da (presiozko ureztatzeko modalitateetako bat, jario edo pibot bidezko ureztatzeko bezalakoa) 805,5 hektareako eremuan. Horietatik 190,6 hektarea Valtierrako Udalarenak dira eta 614,9 partikularrenak. Obra horretarako 584,4 km-an hodiak jarri dira.

Bestalde, partzelak elkartzeak partzela kopurua murriztea ekarri du, hasieran 2.032 partzela baitzeuden eta orain 519, 404 jaberrenak (partzelak elkartu aurretik 591 ziren jabeak). Orain, jabe bakoitzak 1,2 partzela ditu batez beste; lehen, aldiz, batez beste 3 zituen bakoitzak. Presiozko ureztatzeko batez besteko ustiategiaren tamaina 9,3 hektareakoa da.